

Hamar koru gaur Gabon Kantak abesten Juan Bataiatzailea parrokian

■ Inularreko 20:00etan hasiko da ■ Aurretik, kalean ere izango da musika eta kantua ■ Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak (200 denera) 18:00etatik 19:00etara ibiliko dira kalean kantari.



Hernaniko abesbatzetako jendea kantari iazko Gabon Kantuen kontzertuan.

HAMAR abesbatza eta ehundaka lagun bilduko dira aurreten ere Juan Bataiatzailea parrokian Gabon kantak abes-

teko. Ikastola eta ikastetxeetako gazteak, musika eskolatan ikasten ari diren ikasleak, eta herriko hiru koruak izan-

go dira publikoaren gozagarriak. Iaz, parrokia lepo betetzen. Parrokiko Abesbatza hasita, talde bakoitzak bina

kantu abestuko ditu. Gero, bukaeran, talde guztiek elkarrekin *Haurtxo Maite* kantua abestuko dute. □

GABON KANTUAK GAUR PARROKIAN - EGITARUA

1- Parrokiko Abesbatza Zuzendaria: Juan Jose Arregi <i>Haurtxo eder</i> eta <i>Transeamus</i>	<i>zuria</i>	<i>Aleluia</i> eta <i>Aintzaldutza</i> <i>Aingeruak</i>	9- Ozenki Abesbatza Zuzendaria: Imanol Kamio <i>Entzun Meltxor</i> eta <i>Hator, Hator</i>
2- Urumea Ikastola. DBH. Zuzendaria: Joxe Ramon Berrondo <i>Haurtxo maite</i> eta <i>Hator, Hator</i>	4- Langile ikastetxea Zuzendaria: Ainhitze Azpia <i>Kuin txakurra</i> eta <i>Aspaldiko Olentzero</i>	7- Hernani Musika Eskola Zuzendaria: Garbiñe Orbegozo <i>Ganaren erdian</i> eta <i>Olentzero</i>	10- Kantuz Abesbatza Zuzendaria: Nuria Barba <i>Oi Betlehem</i> eta <i>Horra Mari Domingi</i>
3- Inmaculada Ikastetxea Zuzendaria: Laura Pacheco <i>Albako Txakurra</i> eta <i>Eguberri</i>	5- Elizatxo ikastola Zuzendaria: Fernando Ederra <i>Mesias</i> eta <i>Alaken</i>	8- 'Doinu Zale' Musika Eskola Zuzendaria: Imanol Kamio <i>Gabaren erdian</i> eta <i>Olentzero</i>	11- Talde guztiak elkarrekin <i>Haurtxo Maite</i>

Igerian ikasteko matrikulazioa zabalik

■ Izena ematea kiroldegian, datorren igandera arte da. ■ Kiroldegia itxita: abenduak 24, 25 eta 31; eta, abenduaren 29 goizean igerilekua itxita egongo da. ■ Abenduaren 29 goizean igerilekua itxita egongo da. ■ Abenduaren 29 goizean igerilekua itxita egongo da. ■ Abenduaren 29 goizean igerilekua itxita egongo da.

IGERIKETA ikastaroak emango dituzte urtarrean, kiroldegian. Helduentzako eta 5 urtez gorako umeentzako izango dira ikastaroak. Izena ematea gaur eta datozen hiru egunetan egin behar da.

ZOZKETA, 26EAN
Izena ematen dutenekin zozketa egingo da hilaren 26ean, nor hartuko duten jakiteko. Zozketaren emaitzak jakiteko hilaren 26 eta 27an kiroldegira deitu (943

552185). Dagokion egunetan matrikula ordaindu ezean plaza galduko da.

GABON BUELTAN ITXIA
Gabon bueltako oporrak dirrela-eta kiroldegia itxita

egongo da zenbait egunetan: abenduaren 24, 25 eta 31ean eta urtarilaren 1ean eta 6an. Abenduaren 29 goizean igerilekua itxita egongo da, igeriketa txapelketak jokatuko direlako. □

BERRIAK ELKARTEA

Txorimalo lehiaketa, bihar

■ Elkarteak hurrengo bi larunbat arratsaldeetan komertzioak zabaltzea nahi du.

BERRIAK elkarteak urteroko txorimalo lehiaketa egingo du ostiralean, 20:00etan Gudarien plazan. 12 urtetik gorakoentzat izaten da. Dagoeneko, animatu dira talde batzuk, Gazte Txokoa, Elizatxo, Urumea... Irabazleari 15.000 pta-ko *balea* emago diote; bigarrenari 10.000 pta. Oraindik badago izena ematerik *Haizea* dendara deituta: ☎ 943-555519

ZOZKETAN, 100.000 PEZETAKO SARIAK
Zozketa ere antolatu dute abenduaren 29rako. Denetako sariak dira: bidaiak, nekazal etxean asteburua, ogia urte guztirako, *baleak* dendatan erabiltzeko... Bederatzi *lote* dauzkate zozketa-tzeko, bakoitza 100.000 pta ingurukoa. Boletoak *paper hori* bat daukaten dendetan bete.

LARUNBAT ARRATSALDEETAN, IRIKI
Abenduaren 22an eta 29an denda batek baino gehiagok irikiko du. *Berriak* elkarteak animatu egin nahi ditu dendariak beren etla-blezimenduak zabaltzeko. □

MINER JANARI DENDA

Santa Luziko azokan 1. saria lortutako **ERREZIL sagarra** saltzen dugu.

MINER JANARIDENDA
Nagusia 49 HERNANI

Skoda Fabia Iritsiko den jendea rentzat

MENABI
Txingurri pasealekua 26 - Herrera - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

GALARRETA FRONTOIA
Galarreta gaina z/g - HERNANI

GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- ⊙ 1. partidua: LARREA-ASTIBIA / MATXIN III-LANDER
- ⊙ 2. partidua: EZKURRA - ETXEBERRIA III / ALTUNA II-LIZASO
- ⊙ 3. partidua: ELIZALDE-ETXABE / IÑIGO-AIZPURU
- ⊙ 4. partidua: ZEBERIO I-BADIOLA / BEREZIARTUA-ZANDIO

Gaztetxo asko Karabelgo krossean

■ Gaztetxoetan, 160 korrikalaritik gora atera ziren, lau kategorietan.



Emakumeetako irabazleak beren sariekin (Argazkia: Biyok)

KARABELGO krossak aurtentzen parte hartze ona izan du. Antolakuntzak emandako datuen arabera sailkapena honako hau izan zen, kategoriaz kategoriaz.

Alebinetan, nesketan: 1) Leire Giganto, 2) Maddi Iradi

eta 3) Janire Urrestarazu. Mutiletan: 1) Unai Bello, 2) Julen Garmendia eta 3) Aitor Odriozola.

Infantiletan, nesketan, 1) Eider Aldabe, 2) Laura Madina eta 3) Jaione Aranburu; mutiletan: 1) Aitor Garmen-

dia, 2) Xabi Zabaleta eta 3) Manex Pagola.

Kadete kategorian, nesketan, Ane Gerra izan zen onena eta Iradi Muñoz sartu zen bigarren postuan. Mutiletan Mikel Olabidek irabazi zuen eta Julen Aldabek egin zuen bigarren.

Infantiletan, Iurgi Blanco sartu zen aurrena. Eneko Loran bigarren eta Julen Mitxelena hirugarren.

BESTE KATEGORIAK

Seniorretan, Iñaki Lopetegik irabazi zuen gizonezkoetan, eta Eider Goikoetxeak emakumezkoetan. Beteranoetan, Rosarito Lasa eta Antonio Ukar izan ziren onenak. Edadetuenan, berriz, Juan Sasiain izan zen, 63 urteko korrikalaria. □

ESKOLARTEKO KIROLA -EMAITZAK



Landaren gazte kuadrila galanta bildu zen errugbian jokatzera.- (Argazkia: Biyok)

ESKUBALOIA	TALDEAK	SASKIBALOIA	TALDEAK	HOCKEYA	TALDEAK
Alebinak	Present. 0-Urumea 3	Alebinak. Nes.	Urumea 31-Elizateko 21	Benjaminak	Langile A 3-Langile C 7
PELOTA	TALDEAK	Alebinak. Nes.	La Salle A 22-Langile 22	Benjaminak	Urumea 0-Langile B 1
Alebinak	Langile A 2 - Langile B 5	Alebinak. Mut.	Langile B 50-Langile A 60	FUTBOLA	TALDEAK
Alebinak	Elizateko B 5-Elizateko A 2	Alebinak. Mut.	Inmaculada 34-Mary'w. 27	Infantil mut.	Urumea 0-Aralar 6
Alebinak	Urumea 5-Langile C 0	Infantilak. Mut.	Inmaculada 9-Loiola B 92	Infantil nesk.	Langile 0 - Udarregi 1
Infantilak	Langile B 1-Udarregi A 5	Infantilak. Mut.	Aldapeta B 29-Langile 23		
Infantilak	Udarregi B 3-Langile A 5				

Santo Tomas egunean, txistorra

■ SANTO TOMAS egunean txistorradak izaten dira han eta hemen. Kronikara lau lekutatik pasa dute abisua, baina, leku gehiagotan ere izango da. Jubilatu Etxean 11:30etan da; Orkolagan 18:30etan; Karabelen 19:30etan; eta Sorgintxulon arratsaldeko 19:00etan. Jubilatu Etxean, txistorrada aurretik banatuko zaizkie sariak karta txapelketako irabazleei. □

JUBILATU ETXEA

Zuzendaritza berrirako izen ematea zabalik

■ JUBILATU Etxeko zuzendaritza taldeak laister bukatuko ditu bere lanak. Zuzendaritza berria otsaileko batzarrean erabakiko da. Ordurako, prest dauden talde edo banakakoek izena eman beharko dute Jubilatu Etxean bertan. □

3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa, gaur

■ 3/4 plataformak kontzentrazioak egiten ditu kondena hiru laurdenak bete dituzten preso askatasuna eskatzeko. Aira, Lujanbio, Pagola eta Arnaiz dira egoera horretan dauden hernaniarrak. Pankarta Xabier Arnaizen senide eta lagunek hartuko dute. Plaza Berrian arratsaldeko 19:00etan. Bestalde, aurreko larunbatean, Xabier Arnaizen askatasuna eskatzeko egindako egun pasako argazkiak eramango dituzte gaurko kontzentrazioa. Jendeak zerbait idazteko aukera ere izango du eta argazkiak, gero Xabierri berari bidaliko dizkiote. 3/4 plataformakoak egun pasa haren balorazio oso ona egin dute, jendearen erantzuna eta sortutako giro "oso onak" izan zirelako. □

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: J.M. Iraza bertsolariarekin finalari buruz 12:30: Ruper Ordorikari elkarrizketa 13:00 Bertsolari Txapelketa Nagusia. Finaleko arratsaldeko saioa botako dute, osorik.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
 ► Udaltzaingoa: 943 333288
 ► DYA: 943 464622
 ► Autobusak: 943 556662
 ► Anbulatorioa: 943 557750
 ► Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
 ► Gauez: Elizondo Andoain. Zumea 30 ☎ 943 592629

Xarobe
 DELICATESSEN
 Produktu Bereziak
 Nagusia 17 • 20120 HERNANI
 ☎ 943 55 21 27
 POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

 ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA
 Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

ELIKAGAI KALITATEKO EUSKAL LABELA

PINEDA
 HARATEGIA
 Kardaberaz 32 - Tel 943 551643 - HERNANI
 GARANTIA ZIURTAGIRIA

TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK
ANEXO
 Gabonetan eskaintza bereziak:
 - Philips 25" telebista (stereo, Teletexto, frantsesak,...): 79.900 pzt
 - Philips 28" telebista panoramikoa: 89.900 pzt
 Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

Abenduak 22 larunbata
Barrikotea
 20,00etatik aurrera.
Mañukorta eta Larrañaga
 bertsolarietkin.
ELUTXETA
 Sagardotegia Erretegia
 Oztaran Ballara 20130 URNIETA
 Izen emateko deitu:
Tel. 943 55 69 81

AMEGAR, C. B.
 ETXE TRESNAK
 SUKALDE ALTZARIAK
 Izpizua 27
 ELEKTROGAILUAK - TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
 Txirrita kalea 15
 Tel 943 551125-Faxe 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

Bidaiak
 HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA
HERNANI BIDAIAK
 Urbieta, 6
 ☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
 Faxe: 943 - 33 01 74
 20.120 HERNANI

OKINDEGIA
ANTZIOLA
 Eguneroko ogirik onena!
 ANTZIOLA AUZOA, 3
 Tel. 943 55 17 91
 HERNANI

EGUZKI PERFUMERIA
 Gure denda berrituan, behar duzun eskaintza daukagu.
 - Perfumeria
 - Opariak
 - Boutique
 - Edertze gela
 - Solariuma
EGUZKI PERFUMERIA
 Kale nagusia 45 - Tel. 943 551 333 - HERNANI